

PENTSAMENDUAREN HISTORIA

1. GAIA: Aro klasikora hurbilketa- Hiri estatua

Grezia Klasikoa- garrantzia:

- Pentsamenduaren garapena: pentsamendu kritikoa sortu (mitoa gainditu, eta ezagutzara saltoa eman, egoera ekonomikoari esker ematen da hau)
- Zibilizazio asko garatu ziren zentroa zenaren (ekialde hurbila: Egipto, Sumeria, Persia...) inguruan: Txina, India, Grezia (horrek esan nahi du ez zela zentroa)
- Modernitateko ideal politikoen sorburua izan zen (justizia, zuzenbidea...)

Garaiko egitura nagusiak:

- Helade: Polisen arteko nolabaiteko batasuna zen, kultura eta hizkuntza bera zuten komunitate etnikoak ziren. Hauen batasunaren adibide dira olinpiadak (lehengoak k.a. 776.urtean)
- Hiri estatuak: politikoki isolatuak ziren (nolabaiteko autarkia). Gizonek polisarekiko lotura emozionala zuten, politika polis-mailan ulertzen zelako.
- Polisetik kanpo: barbaroak zeuden, hauek subsistentziara bideratuta zeuden
- Ekialdeko gizarteak: polis kulturaren oso ezberdinak ziren, gizabanako-politika identifikazio hori ematen ez zelako.

Polisa: hiri estatuak eta hiri tribalak (odolak garrantzia !!!!) ziren

- ❖ Ez ziren oso handiak
- ❖ Ekonomikoki konplexuak (jarduera ekonomiko asko)
- ❖ Kultura greziarra zen, baina polisen artean ezberdintasun asko ematen ziren

KOKAPENA:

- ❖ Ekialdeko herrien eragina jasotzen zuten, Europan egonda eta konkistatuak izan gabe
- ❖ Itsas-zibilizazioa zen: menditsua zenez lurreko komunikazio gutxi (isolamendua), baina itsasoz komunikazio handia (uharte, penintsula...)

EKONOMIA

- ❖ Autarkia ekonomikoa
- ❖ Aberastasunik ez (sektore batzuk kenduta, lanik egin gabe aberatsak zirenak: erregea adib.), baina subsistentzia gainditzen zuten

ERLIJIOA:

- ❖ Pentsamendu irekia

POLISEN KONTRAESAN NAGUSIAK

- Hiritarra/kanpotarrak ***Hiritarrak: bertakoak+gizonak
- Gizonak/emakumeak
- Estatu "moderno" hiri mailan kokatuta, beraz hedadura txikia
- Klase banaketa sakona:
 - Esklabotza: sistemaren oinarria ziren (ekonomikoki eta kopuru aldetik), ez zuten politikan parte hartzeko eskubiderik, beraien artean ere ezberdintasun handiak ematen ziren
 - Atzerritar egoilarrak: maila altua ere izan zezaketen, baina politikan parte hartzeko eskubiderik ez

- Hiritarrak: politikan parte hartzeko eskubidea zuten, odolaren ondorioz. Hauen artean: oligarkia, nekazariak, artisauak...

Esparta: polis ideal eta mitifikatua

- Heloteak: konkistatzaileak (kanpotarrak), baina aberatsak eta hiritarrak
- Lazedemoniarrak

(***)

EZAUGARRIAK:

- Barne-gatazka handiak, zapalkuntza baliatu, hiritarrek segurtasun-eza
- Sozializazioa:
 - Gizarte balioetan hazi (ez indibidua); zentzu komuna barneratu.
 - Militarra eta kolektiboa → Kofradia: haur mutilak kolektiboki hezteko
- Polisaren IDEALAK: militarra + sozializazioa

Atenas: demokrazia

- Garrantzitsua sortutako erakunde politikoengatik (+teoria politikoagatik)
 - Aldaketa asko jasan zituen (krisiak...), k.a. 500.urtean izanik demokrazioaren gorena
 - Balore "pazifistagoak", ez horren militarra
 - Lege/ konstituzio ezberdinez joan ziren osatzen instituzioak:
 1. *Ecclesia/ batzar orokorra*: instituzio militar garrantzitsuena. Gizon hiritarrek parte har zezaketen, gainera errepresaliarik gabe askatasunez hitz egiteko aukera zuten, duintasuna aldarrikatuz.
 2. *500en kontseilua*: batzar orokorretik aukeratuak. Legeak eta hildo-politikoak erabakitzen zituzten.
 3. *50en kontseilua*: eguneroko erabaki azkarragoak hartzeko. Hemendik presidentea aukeratu.
 4. *Botere deszentralizazioa*: auzoetan egitura propioak, boterea banatzeko nahia zegoen, inork kontzentratu ez zezan
- ➔ Zozketa bidez aukeratuak (sorteismoa, demokrazia era bat)

PLATON

Bizitza

- K.a. 428-347 (?)
- Sokratesen ikaslea, eta bere heriotzak eragin handia izan zuen beregan
- Familia aristokratikoa
- Akademia (388) sortu: ikerketara bideratuta
- Magna Graecia (Sizilia): polisaren ideia aurrera eramateko, errege aholkularitzat joan zen. Azkenean bota eta Atenasera itzuli behar izan zen

Metodo platonikoa

Elkarrizketa bidez planteatu zuen bere filosofia (Sokratesek bezala)

- Dialogoaren bidez iritziak kontrajarri. Horrela egia ezagutzera iritsi gaitzke (dialektika platonikoa/ dinamika objektiboa***).
- Guztiaz eztabaidatu daiteke
- Errealitate sozialaren izaera: desberdinu iritzia (doxa) eta errealitatea. Doxa gainditu eta errealitatea ezagutzea da helburua

*** dialektika platonikoa: errealitatea existitzen da, horregatik hori ezagutzen saiatu gaitzke dialektikaren bidez (baina guztiz ez ezagutu)

“Errepublika”

- Platonek sorturiko gizarte perfektuaren proiektua (utopia)
 - Gizakiaren hedapena bultzatu (gizakiarentzat ona= polisarentzat ona)
 - Justizia: izan behar denari buruz hitz egiten du (gai guztiak jorratu gabe)
 - Antolaketa: lanaren banaketan oinarritu (funtzionala, bakoitzaren ezaugarrien/bertuteen arabera). Hori justoa izango litzateke, eta zorientasuna lortu daiteke. Klase banaketa “naturala”/ “justoa” proposatu, bertuteen arabera:
 - Behe klasea: polisaren beharrezko funtzioak bete (nekazariak, merkatariak...)
 - Goi klasea: 1. Defentsa
2. Gobernariak (filosofoak)+erregea (ezagutza maitatu)
 - Emakumeak: teoriar berdinak, praktikan ez. Haurrak heztera bideratu.
- ➡ Komunismo platonikoa: goi klaseek jabetza pribaturik eta familiarik ez

ARISTOTELES

Bizitza

- Mazedoniarra (Estagira)
- Platonen ikaslea
- Erregearen medikuaren semea (goi-klasekoa)
- Alexandro handiaren irakasle partikularra (honek helenismoa zabaldu zuen)
- Lizeoa sortu: ikasketa eta ikerketara bideratuta

Teoria filosofikoa

- Heladeko Polis ereduak aztertu(lege araudiak). Azkerketa teleologikoaren arabera:
 - a. Normalak/onak: herriarentzat onak
 - i. Monarkia: agintari bat, bertutetsua, denen ongia bilatu
 - ii. Aristokrazia: onenen gobernu, bertutetsuak, hezkuntza maila
 - iii. Politeia: hiritarren parte-hartzea, modernizazioan (demokrazia) oinarrituta, muturreko klaseetatik aldentuta
 - b. Ustelak: gobernarien interesei begira
 - i. Tirania: agintean bat, bertuterik ez
 - ii. Oligarkia: gutxi batzuek beraien interesak defendatu
 - iii. Demokrazia (demagogia): moderaziotik aldentuta
- Iraultzaren teoria politikoa/ ordena politikoa aldatzeko eraiki zuen. Ordena mantentzeko, konstituzioak bi ezaugarri izan behar ditu:
 - a. Aldekoak oposizioa baino gehiago izatea (eredu ustela ez izateko), baina oposizioak eztabaidarako eskubidea ere izan behar du
 - b. Konstituzio/ lege bilduma orok aldatzeko aukera izan behar du
- Legeak funtsezkoak, naturalak eta hauen izaeraren isla dira (ikuspegi iusnaturalisra)